



JARRAIBIDEA, 2024KO ABUZTUAREN 30EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, LIZENTZIA, BAIMEN, ESZEDENTZIA ETA LANALDI-MURRIZKETA JAKIN BATZUK ESKATZEKO GUTXIENEO ETA GEHIENEZKO EPEEI BURUZKOA.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-eremuko langileek lizentziak, baimenak, eszedentziak eta abar eskatu ahal izateko, ez da berariazko eperik aipatzen, araudi orokorrak oro har horiek ebazteko epeei dagokienez ezartzen duenetik harago.

Illo horretan, oso garrantzitsua da eskaerak egiteko epeak arautzea, bi zentzutan: alde batetik, eskatzaileentzat, haien eskaeren denborak antolatze eta baloratzeko, haien behar pertsonalen arabera, eta, bestetik, ikastetxeentzat beraientzat, absentziak estaltzeko edo eskatutakoa onartzearen ondoriozko beste eskakizun batzuei erantzuteko beharrezko neurriak hartzeko, ikastetxearentzat egokiena den moduan.

Horregatik guztiagatik, Zuzendaritza honek ikusi du lizentzia, baimen, eszedentzia eta lanaldi-murrizketa horiek eskatzeko gutxieneko epeak arautu behar direla; izan ere, aurreikus daitezkeen lizentziak, baimenak, eszedentziak eta lanaldi-murrizketak alde aurreko denbora-tartearen barruan eska daitezke.

Orain arte, irakasleek balia zitzaketen lizentzia, baimen, eszedentzia eta lanaldi-murrizketetako bakar batek ere ez zuen eskatzen alde aurreko gutxieneko eperik. Horrenbestez, antolaketari kalte egiten diote; bai ikastetxeei, bai ordezkoei, eta ordezkapen-zerrenden kudeaketari, oro har, baita eskatzaileari ere.

Irakasleen eskura dauden lizentzia, baimen, eszedentzia eta lanaldi-murrizketa batzuk eskatzeko gutxieneko epea arautzea posible izanik eta, gainera, onuragarria izanik, jarraibide hau ematen da; epea, jarraibide honen aplikazio-eremua eta egoki diren beste gai batzuk zehazteko.

Zuzendaritza honen ustez, neurri horrek lagunduko du, alde batetik, langile eskatzaileek ahalik eta ondoen planifika dezaten beren eremu pribatiboa, eta, bestetik, behar besteko aurrerapenaz aurreikusiko du ikastetxerako absentziak betetzea, dagokion lanpostua betetzeko.

Bestalde, Zuzendaritza honek beharrezkotzat jo du lizentzia eta baimen horiek eskatzeko gehieneko epe bat ezartzea. Lizentzia, baimen eta egoera administratibo horien izapidetze eta kudeaketa administratiboan behin eta berriz agertzen den arazoa da datak aldatzea edo baliogabetzea. Izan ere, kasu askotan, langileek eskaera oso aurrerapen handiarekin egiten dute, eta, horren ondorioz, gero beren gozamen-lehentasunak aldatzen dituzte eta nahitaez aldatu edo baliogabetu behar izaten dituzte. Horrek lan gehigarria dakar lurralde-ordetzkaritzetako langileentzat, birritan kudeatu behar dutelako lizentzia, baimena edo administrazio-egoera emateko izapide bera.

Azaldutakoaz gain, eta lizentzia, baimen eta administrazio-egoeren eskaeren kasuan isiltasunaren baiezkotza izaera kontuan hartuta, ezin da eskaera horien izapidetzea atzeratu gozamen-dataren hurbileko data batera, eta eskaera horiek jaso eta epe labur batean izapidetu behar dira.

Aurrekoa saihesteko, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza honek beharrezkotzat jotzen du, era berean, eskaera egiteko gehieneko aurrerapen-epe bat ezartzea, eta ulertzen da hilabeteko epea dela egokiena aurreko arazoari irtenbidea emateko.

Azaldutakoagatik, honako hau da:

XEDATU DUT

1. artikulua.- Jarraibide honen xedea da hurrengo artikuluan zehazten diren lizentziak, baimenak, eszedentziak eta lanaldi-murrizketak eskatzeko gutxieneko eta gehieneko epea arautzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari kanpoko karrerako irakasle funtzionarioentzat eta bitarteko irakasle funtzionarioentzat.

2. artikulua.- Honako lizentzia, baimen, eszedentzia eta lanaldi-murrizketa hauek hartu baino 10 egun baliadun lehenago eskatu beharko dira, eta ezingo dira eskatu hasiera eguna baino hilabete bat baino lehenago:

- Norberaren edo ahaideen ezkontzagatiko lizentzia (42. Art. 185/2010 Dekretua).
- Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia (46. Art. 185/2010 Dekretua).
- Ikasketa-lizentziak.
- Ikasketa ofizialak egiteko baimena (61. Art. 185/2010 Dekretua).
- Azterketeta ofizialetera joateko baimena (53 Art. 185/2010 Dekretua).
- Norberaren gauzetarako baimena (58 Art. 185/2010 Dekretua).
- Ordaindu gabeko baimena (59 Art. 185/2010 Dekretua).
- Minbizia edo gaixotasun grabea duten adingabeak zaintzeko baimena (49.e) art. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua).

- Norberaren interesarengatiko borondatezko eszedentzia.
- Seme-alabak zaintzeko borondatezko eszedentzia.
- Senideak zaintzeko borondatezko eszedentzia.
- Seme-alaba adingabea zaintzeko zerbitzuak aldi baterako etetea.
- Lanaldi-murrizketak.

Bestela, eskabide horiek epez kanpo aurkeztu direla ulertuko da, eta lizentzia, baimena, eszedentzia eta/edo lanaldi-murrizketa eskatu eta hurrengo 10 egun baliodunetan emango dira.

Aurrekoa dela eta, lanera itzultzeko eskaera egitea beharrezkoa den administrazio-egoerek (hala nola eszedentziek edo aldi baterako eteteek) gutxienez 10 egun balioduneko iraupena izan beharko dute, modalitate bakoitzerako gai horri buruz araututakoa alde batera utzi gabe.

Hala ere, premiazko eta salbuespenezko egoera bat gertatzen bada, eta lizentzia, baimen, eszedentzia eta/edo lanaldi-murrizketa hori berehala eman behar bada, edo eskaera egin eta 10 egun baliodun igaro aurretik eman behar bada, egoera hori salbuespen gisa aztertu ondoren, interesduna gutxieneko epe horretatik salbuetsi ahal izango da, betiere egoera hori behar bezala egiaztatzen bada.

Ilido horretan, ikasturte-hasierako esleipenean, epea 10 egun baliodun baino gutxiagokoa izan daiteke, abuztuaren azken asteko esleipenetan, ikasturte-hasiera dagokion langileekin hasi ahal izateko ikastetxeetan, eskatutako lizentzien, baimenen, eszedentzien eta murrizketen arabera.

Gehieneko epeari dagokionez, salbuespen gisa, ikasturte-hasierako esleipenetan plaza lortu duten eta ikastaroa hasteko lizentzia, baimen edo administrazio-egoeraren bat eskatu nahi duten pertsonak, hilabete baino gehiagoko aurrerapenarekin eskatu ahal izango dute. Kasu horietan, hurrengo ikasturterako esleitu zaien lanpostuaren behin betiko ebazpena argitaratzen den egunetik bertatik eskatu ahal izango dute.

3. artikulua.- Era berean, instrukzio honen 2. artikuluan araututako aurretiazko eta gehienezko aurrerapenarekin egin beharko da lanera itzultzeko eskaera, eta, nolanahi ere, itzultzeko eskatutako data bat etorri beharko da zerbitzuak benetan eman daitezkeen egun baliodunekin.

Indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, gogorarazten da seme-alabak zaintzeko eszedentziaren gehieneko aldia igarotakoan jarduneko zerbitzura itzultzeko eskaera egiten ez bada, karrerako funtzionarioak borondatezko eszedentziara igaroko direla, eta bitarteko langileen kasuan zerrendetatik kanpo geratuko direla ordezkapenak egiteko izangaien araudian ezarritako aldian.

Hurrengo ikasturteko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin aurkezten diren zerbitzura itzultzeko eskabideak hilabeteko aurrerapen mugatik kanpo geratuko dira. Eskaera horiek ikasturte-hasierako esleipenetan parte hartu ahal izateko behar adinako aurrerapenarekin egin ahal izango dira.

Azken xedapena.- Jarraibide hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko web-orrian argitaratzen denetik aurrera jarriko da indarrean (<https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-lizentziak-baimenak/web01-a3hklair/eu/> eta <https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-eszedentziak-zerbitzu-bereziak/web01-a3hklair/eu/>).

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 30ean.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEA
(2024/07/26ko Aginduaren bidez)